

Josu Iztueta

Bizitzaren bidaiak gozatzeko ari den bat

Ramon Olasagasti

ZENBAT aldiz entzun ote du "Hi bizi haiz, hi!" esaldia bidaiaren batenik bueltan, edo bidaiaren bati ekitear. Bidaiatzea ondo bizitzearen adierazle jotzen baita egun, bidaiak beste edozein kontsumo produktu biltzen; ahaztu egiten zaigu ordea, bizitza bera dela bidaiak, eta bidaiak horretan bizitzea dela garrantzitsua. Josu Iztueta aspaldi jabetu zen horretaz. Berak idatzia da: "Ez nintzen jaio bidaiatzeko, bizitzeko jaio nintzen. Gero, bizitza bidaiatzea ahaztu dit, eta bidaiatzeak bizitza estimatzera eraman nau". Horregatik, "Hi bizi haiz, hi!", entzuten duenean, baretz erantzun du, ondo bizi dela, bere bidaiak gozatzeko ari dela.


Bere bidaiak 1957ko abenduaren 20an hasi zen; aurki beteko ditu, beraz, 44 urte bidaiatzen. Aita Berastegikoa, ama Larraulgoa, erdi bidean jaio zen bera, Tolosan. Bailarako herri nagusian sortu arren, herri txikiak giroa txikitatik ezagutu zuen, eta hori oso lagungarri gertatu zaio bizitza estimatzeko: "Nik ezagutu dut ama jaiotzetatik ur bila iturrira joaten, ama eta izeba errekan arropa garbitzen, astoarekin plazara jaisten... Marokotik etorri berrikan, konturatzen naiz orain hain ikusten dudana, duela 40 urte hemen bertan bizi genuela. Jabetzen naiz ze gogorra zen herri txikiak edo baserriko bizitza...". Bidaiaren hasierako giro horrek begiak zolitzeko, zabaltzeko balio izan zion Josuri.

Ikasketak "gauz onerako leku gehiegitan" egin zituen: hasi Gainberrin, gero urte erdi akademia batean, ondoren Berazubin, segidan Eskolapioetan eta handik, langileen semeentzat zeuden beka batzuen bidez, Kordobara. "Tolosan bidegurutze nagusia hartua nauen: eskia probatua, eskalatzen hasia... eta halako batean, 14 urterekin Kordobara joan behar izateko, erbeste modukoa izan zen niretzat. Eskarmentu ona izan zen hala ere". Desherrian bi urte egin eta gero, Tolosara itzuli zen, UBI Tolosan egin eta Paper eskolan ingenieritza teknikoa ikasi zuen. Eta, jakina, bidegurutze nagusi horretan aurrez hartutako biderei eutsi zion: kirola, eskia, mendia... Ikasten ari zela hasi zen lanean ere, eta halaxe, pulidora batean astean sartutako 20 orduer esker, joan zen mendiko material itxurazkoagoa lortzen, eta era berean, halaxe joan zen gauzek duten benetako balioaz jabetzen. Gogoan du, garai haietan lumazko zaku bat 3.600 pezeta kosta zitzaioela, hilabete oso bateko soldata. Bizitza bidaiak bada, ekonomikoki buruaske izateak bestelako askatasun batzuk zekarzkiela gazterik ohartu zen, inori ezer eskatu, edo inork ezer oparitu zain egon gabe.

Rebuffat, Maestri, Patxi Berrio eta tren zaharreko makinistak Josuk idatzia da honakoa ere: "Tren zahar horren bagoi horietako bat nahiago dut, AHTan joan baino. Maite dute bere kulunka eta pauso mantsoa, geldialdiak geltoki denetan egitea, bagoietara igo eta jaisten den jende guztia...". Gustoko bagoian, eta gustoko norabidea hartuta, bizitzaren tren horretan berebiziko garrantzia izan zuten pertsonak igo ziren bere bagoira, oso gazte zela artean: Cesare Maestri eta Gaston Rebuffat adibidez, nola ahaztu Tolosan eskaini zituzten proiektu haiek? Edo Julio Villar eta Eh Petrel liburua, edo Viven edo Acali-ren irakurketa... Tren zaharrean norbaitek argia piztu izan balu bezala izan ziren diapositiba emanaldi eta liburu haiek, bagoi hartan bidaiatzen jarraitzeko gonbitea bezala.

Rubuffat eta Maestri baino gertuagoak ziren ordea, Josu abiatu zen tren zaharreko makinistak. 13 urte zituela, Arafarera eskiatzera gonbidatu zuten haiek, adibidez: Mikel Arrastru, J.J. eta Ramontxo Elosegi, Lukas Mendikute, Antxon Bändres, Manueltxo Mokoroa... "43 zenbakiko botak eman zitzaizkidan probatzeko, Ceondo al dauzkak? galdetu zidaten; alde guztietatik neuzkan sobran, baina neure artean pentsatu nuen besterik eta ez badaukate zer? CE Bai, bai, bai-erantzun nien. Esklatzen bezalaxe, mendiaz gozatzeko, paisajeaz aparte inguruko gauzekiko kezka eta curiositatea pizten erakutsi zidaten". Esperientzia gogor batek ere arrastoa utzi zuen Josurengan, Patxi Berrio eta Ramon Ortizen heriotzak, Naranjoko horman. "13 urte nituen, zezen plaza ondo bizi zen Berrio, Leidorren ikusitak nituen bere diapositibak, eta istripu hura iltzatuta geratu zitzaizkan. Orduan konturatu nintzen hain gustokoa izan daitekeen bizi modu horrek ere bizitzak ken zezakeela". Bidaiaren gazi-gozoak.

Bidaiaren hasiera, tren zaharrean izan bazen, arestian aipatutako makinisten eskutik, 17-18 urterekin heldutasunarekin batera, etorri zen lehen autoa, Gordini zahar hura, 7.000 pezeta. Hura ere, tren zaharra bezain astiro ibiltzen zen, puzkar eta puzkar Pirinioetarako bidean edo etxera bueltan. "Gauz asko erakutsi zizkigun Gordiniak: geografia eta mekanika, historia eta ekonomia... beharra bezalako eskolarik ez dela erakutsi zigun batez ere". Konturatzerako, tren zaharreko makinista izateko euren egokitu zitzaizkien: ehundaka eta ehundaka izango dira Angel eta Jesus-Ortiz, Josu eta Jagunen eskutik Belagoan iraupen eskia egiten ikasitako gaztetxoak. Josu bera 16 urte zituenetik 22 ingurura arte ibili zen iraupen eskiko ikastaroak ematen.



■ Nairobotarra

Gordiniak bereak eman zituenean, beste furgoneta urdin zahar bat etorri zen, eta gero Comer bat, guztiak ere tren zahararen abiada pausatuan mugitzen ziren ibilgailuak. 1978an, Josu Londresen zela, Katmandura bidaiak antolatzen zituen Top Deck agentziaren esku-orriak iritsi ziren bere eskuetara: barrutik erabat prestatutako autobus baten argazkiak agertzen ziren esku orri haietan. Bestalde, garaitu berean, Angel Ortiz eta Manueltxo Mokoroa, Kilimanjaro aitzakia hartuta, Nairobira autoan joateko prestatzen ari ziren. Azkenean, autoaren ordez, Pegaso autobus zahar bat erosi, eta Josuk Londresetik ekarritako esku-orria eredu hartuta, barrutik prestatu zuten. Lehen bidaiia hura Angel Ortiz, Manueltxo Mokoroa eta 17 bezerok egin zuten. Josu Iztueta eta Lukas Mendikute berriz, Argeliako Saharara joan ziren, Land Roverrean. Pegaso zaharra, hainbat matxura eta komeriaren ondoren, iritsi zen Nairobira, baina han geratu zen. Herri-lan Ministerioak erosi zien, futbol talde batentzat.

Angel Nairobotik bueltatu zenean eta Josu basamortutik, biak antzerako egoeran zeuden: bata soinketako eskolak ematen eta bestea euskara erakusten, baina biak behin-behineko egoeran. Beraien bizitzako erabakirik garrantzitsuena hartu zuten orduan, erabaki naturala euren bidaiaren aurreko pausoak aztertuta: Zergatik ez biekin ezagutzen zituzten lekuetara joan-etorriko bidaiak antolatu jendea eramanez? Han hasi zen Nairobotarraren historia. *"la batere peztarik gabe, mudantzako bi kamioi zahar erosi genituen; hobekien zegoena prestatzeko, eta bestea piezatarako. Bost hilabetetan prestatu genuen, jai eta aste, bateko soldadura, besteko kristala, rematxea eta atornilaztea... Lehen bidaiia Tamanrassetara izan zen. Gu 23 eta 24 urteko bi mukitzu besterik ez ginen, bidaira zetozen 20 lagunak gu baino zaharragoak ziren, eta ardura handia zen hura guretzat, burua bere tokian jartzeko modukoa".* Lehen bidaiia hartatik bereizi izan ditu Josuk lan-bidaiak, "ardura geurea den bidaiak", eta bestelako bidaiak edo abenturak, *"non ardura bospasei lagunen artean elkar banatzen den"*.

Lehenbiziko urte haietan, Nairobotarrarekin egindako bidaiak gehienak basamortura izan ziren. Betidanik sentitu izan du Josuk bizi-baldintzak muturrekoak diren lekuekiko erakarpena, izan

basamortu edo izan izotz. Leku horien eskuragaiztasun, arrisku puntu, eta haietara moldatu izan den jendearekiko miresmenak sortzen dio erakarpena. *"Herri txikietako bizimodua ezagutzeak bizitza estimatzen lagundu zidan bezala, bi mutur horiek ezagutzeak bizi garen tokian bizitza zein pribilegiatuak garen konturatzera eramana nau: itsasoa, mendia, elurra, denetarik daukagu"*.

■ Josu eta Dina

Euskara ere betidaniko kezka izan da Josurentzat. Euskaltegiko maisu izan zen hainbat urtez, eta UEU ere ohiko zita zuen, Iruñeako Larraonan. 1980ko hura, ordea, diferentea izan zen. Acali liburua gogoan, leku mugatu batean giza konportamendua zernola aldatzen den aztertze aldera, Esako urtegiaren baltsa batean astebete igarotzea proposatu zuen. Bospasei lagun animatu ziren esperimentera. Haien artean Dina Bilbao. Orduan ezagutu zuten elkar Josuk eta Dinak. Harrezkero, ilehori ondarrutarra urte askotako bidaide izan zen Josurentzat, *"bidaiia, abentura eta beste mila plan konpartitu genituen 15 urteko elkarbizitzan"*.

Plan horiek guztiek sorburu bat zuten, Josuren burua hain zuzen, eta sorleku bat, Tolosako Letxukale. Josuren bidairan azken bi hamarkadetan, Letxukale izan da leku finko bakarra; Letxukalen hartu dute atseden bidaiak bakoitzetik bueltan eta han zehaztu dira hurrengorako planak; laborategi, liburutegi, amets fabrika eta azken aldira argitaletxe eta guzti bihurtu da Letxukale. Leku finkoa izanagatik ere, Josuren bidaietan eta amets fabrika horretatik pasa diren beste askorenean, funtsezkoa izan da eta izango da Letxukale. Azken batean, berak dion bezala, ezin dugu ahaztu bidaiaririk ipurterreana ere, nomada bilakatutako sedentarioa baino ez dela, eta guztiok behar dugu pausaleku bat.

Letxukalen sortu zen, adibidez, Laponia zeharkatzeko asmoa. 1984ko neguan jo zuten Josu, Dina, Angel Ortiz eta Jon Miren Begiristainek Samien lurraldera. Barentseko itsasotik Norvegiako itsasora, Laponia ekialdetik mendebaldera zeharkatzea zen euren asmoa. Norvegiar ekin zioten, eta Munkelva ibaiaren arroari jarraiki, Finlandiako muga gurutzatu zuten. Biharamonean, ezustekoa, Finlandiako polizia eurak atxilotzera zetorren, muga legez kanpo pasatzeagatik. Kartzela ez da inoiz leku atsegina,



baina Ivaloko espetxean igarotako bi egun haietan, aurreko egunetan bezainbesteko hotzik behintzat ez zuten pasa. Bitarteko gutxiarekin, fondoko bota ziztrin batzuekin, erratzaren bi makila lerari lotuta, baina ilusio ikaragarriarekin osatu zuten lehen zeharkaldi hura. Gero, eskiaren ordez piraguak hartu eta beste zeharkaldi batzuk etorri ziren: Iribasko jaiolekutik Mediterraniaraino, Nilo ibaia Assuanetik Assiutera (500 km)...

Groenlandia, Nansen-en zeharkaldiaren mendeurrenean 1984an, Laponiako zeharkaldiak bukatu eta Oslora itzuli zirenean, gehitxo afaldu nonbait eta urdaila dantzan hasi zitzaion Josuri. Holmenkolleneko tranpolinaren aspian zeuden lotan, eta gaua hotza bazen ere, sabela asentatzera atera zen. Halako batean, Fridtjof Nansen agertu zitzaion, bere harrizko estatua alegia, eta harrizko geratu zen Josu ere. Norvegiako inoizko esploratzaile polar handienari promes isila egin zion orduan: 1988an, Groenlandiako zeharkaldiaren mendeurrenean, eurak ere uharte erraldoia aldenik alde igarotzen ahaleginduko zirela.

Josu bera, Dina Bilbao, Angel Ortiz, Nekane Urkia eta Txiki Plazas menturatu ziren Groenlandiara. Groenlandiako zeharkaldia, garai hartan (duela 13 urte) eta bitarteko haiekin, berebiziko abenturarik handiena izan dela azaldu digu bidaiari tolosarrak: "Nansen eta osagarri historikoa, prestaketak, bakardadea, atzera bueltarik ez, arriskua, lekua bera, telefono eta GPSaren garaiak iritsi aurretik... faktore askok egin zuten berezi Groenlandiako zeharkaldia, niretzat behintzat". 34 egun egin zituzten guztira Greenlandeko izotz kasketean, Angmagssaliken barneratu eta mendebaldeko kostaldeko puntu ezakakin batean atera. Fridtjof Nansen miretsia 100 urte aurreratu bazen ere, euskaldunek ordura arte eginiko zeharkaldi polar handiena izan zen Groenlandiako, eta egun ere, hala da seguru asko.

■ Esperientzia gogorra Alaskan

Hotza eta beroa, bi mutur horiekiko erakarpina inoiz baino garbiago geratu zen +50°/-50° espedizioan, 1993an. Josu, Dina, Pablo Dendaluze eta Jesus Ortiz Ipar Amerika osoa zeharkatzeko asmoarekin abiatu ziren, hasi Alaskan eta bukatu Baja Kalifornian. "Gizakiak muturreko klima horietara egokitzeko izan duen gaitasunari buruz apur bat sakontzea zen gure helburua", dio Jztuetak. Yukongo lurraldeetan, ordea, gizakia inoiz egokituko ez den baldintzak izan zituzten: -65°, zeropetik. Espedizio horizontaletan, arriskuak urtu egiten direla dio Josuk, atzeratu edo mantsotu egiten direla, baina egon badaudela. Hori argi geratu zen Artikutik Tropikorako espedizio hartan, Alaskan inoiz baino gertuago sentitu zuen heriotza: "Denda barruan aldamenekoari galdetzen genionean ea zer moduz, erantzuna jasotzea zen helburu bakarra, bizirik jarraitzen zuela baieztatzea. Scott eta lagunak Hego Polotik bueltan zetozeneko istorioak irakurriak nituen, eta haiexek etorri zitzaizkidan gogora, pixkanaka denak nola joan ziren kandela bezala itzaltzen". Zorionez, Fort Yukonera onik itzuli ahal izan zuten, nahiz eta Josuk eta Pablok Zaragozan egonaldi bat egin behar izan, izozteak osatzen.

Izozteek ez zioten arrastorik utzi gorputzean, harrezkero sahiatsean daraman neuroestimulagailua edo pila moduko bat izan ezik. Izan dira, azken urteotan batez ere, arrasto handiagoa laga dioten gertaerak: esate baterako, Dina Bilbao edo Felix Iñurrategi edo Ramontxo Elosegi ez ditu gehiago bidaide izango. Aldi berean, ordea, gertaera horiek indar eman izan diote bere bidaiko txartela "a tope" aprobetxatzeko. Horregatik, Dinarena gertatu zaharra ez zela, inoiz baino ilusio gehiagorekin ekin zion Hiru pauso, hiru norabide proiektuari. Hain maitea duen



ARGAZKIAK JOSU IZUETA

Eskandinavian hiru zeharkaldi egin zituzten Josuk eta trilogian parte hartu zuten hamar lagunek: Oslo-Nordkapp eskiatzen (2.000 km); Oslo-Helsinki piraguan (1.500 km) eta Oslo-Kirkenes bizikletan (3.500 km). Trilogiak, esperientzia konpartitze aldera, ekarri zuen bere liburua, eta hasierako hariari tiraka, Josuk berak piraguako zeharkaldiaren ondoren idatzitako hitzak idra segidakoak: *"Itsasoak gauza txiki asko eman dit, baina asko maite nituen bi lagun kendu ere bai. Oraingoan botatako izerdi tantek, orduko malkoek eta itsasoak berak zapore antzekoa dute: gaziak dira"*. Gazi-gozoz betetako bidaia baita bizitza.

Hiru pauso, hiru norabide trilogiaren ondoren, Josuren errotatik sortutako beste egitasmo bat ere gauzatu da: Pangea, kontinente bakoitzaren sakonuneak aztertzeraz eraman dituen proiektua. Baina Josu ezagututa, Nairobitarraren bolantean edo Letxukaleko amets fabrika, sortuko da bestelako egitasmorik.

Dabilen hariari goroldiorik itsastan ez zaion bezala, dabilen pertsonari, begiak zabalik baditu behintzat, dena itsastan zaio; tokian tokiko eta garaian garaiko bizimodua, kultura, kezka eta abarrak, urrunekoak bezala gertukoak. Eta ibiltzearen poderioz, eta ezaguera horiek denak itsastearen poderioz, bidaiariak bidea jarraituko du, bidaiatzeak bizitza estimatzen laguntzen baitu.

■ **"Nahiz eta asko okertu, bidaia aukeratua izatea, hori da gure suertea"**

Bidai batean gehien estimatzen duen osagarrietako bat, jendearekiko harremana da, bai taldekide eta bai bertako jendearekin. Dohai berezia du, gainera, giza harremanetarako, nahiz eta bizi dugun gizarte honetan, sarri korrontearen aurka joan behar izan.

Zerk motibatzen zaitu bidaiatzera eta zer eskatzen diozu bidaiari? Bidaia batzuk niretzat lana direnez, saiatzen naiz lan hori ilusioz betetzen, ilusio hori bidaiariei transmititzen. Bestalde, iruditzen zait jendea gero eta gehiago kezkatzen dela, beti *"egingo*

nuke, joango nintzateke...", eta 10 urte pasa eta bere horretan jarraitzen duela. Bizitza da dugun gauza bakarra: sufritu, disfrutatu, bizi, akabatu, sufriarazi eta abar egin litezke. Niretzat hainbat gauza dira merezi dutenak: bidaiatzea, lagunak egitea, esperientzia horiek transmititzea... Hori da ni mugitzen nauena. Bidaia norberak aukeratua izatea, hori suerte bat da, eta bidai hori asko okertuko balitz, hiltzeraino nahi bada, hala ere suerte bat.

Bizitzaren bidaia honetan, ezohiko ikuspegia ere baduzu? Etxetik mugitu gabeko bidaiak ere oso gustoko ditut. Adibidez, niri pertsonak ezagutzea asko gustatzen zait. Bizitza bera bakarra da, baina lekuak, emakumeak, zaletasunak eta bestelakoak asko dira, zorionez. Badirudi, leku berean bizitzera, emakume bakarrarekin eta zaletasun gutxi batzuekin, horretara mugatu nahi gaituztela. Behin bakarrik bizita konbinazio posibleak bakarrera murriztu behar ote ditugu? Ez nuke ezerren apologia egin nahi, baina horrela pentsatzen dut. Esana dut noizbait, bizitzan txartel bat ematen digutela; gure esku dago txartel hori sesio berdina ikusteko behin eta berriz erabiltzea, edo gaur filme hau, bihar partidu hura, hurrena ez dakit zer ikusteko.

Futurologia pixka bat eginez, etorkizuneko bidaiak nola izan daitezkeen iragarri liteke? Ez dakit gaurko gazteen kezak zeintzuk diren, baina mugitu gabe askoz gauza gehiago egin litezke egun: mobil batetik kronikak bidali, internet bidez hara eta hona ibili... Orduan, ez dakit fisikoki mugitzea hain premiazkoa izango den. Bestalde, iruditzen zait, gaurko gazteek gurasoekin bidaiatzeko askoz aukera gehiago izan dutela: eskiatzera ez dakit nora, ingelesa ikastera Ingalaterrara... Askorentzat bidaia kontsumo produktu bat gehiago bihurtuko da. Guk, bidaiari bezala sinistu nahiko dugu, eta turista adjetiboa baztertu, baina ez dakit. Ni, pertsonalki baikorra naizen moduan, gizarteari begiratu eta ezkor samarra naiz. Gero eta jende gehiagok bidaiatuko du, gaur egun soldata normal batekin munduko edozein muturretara joan daitekeelako. Groenlandiara joan eta jendeak inuitekiko izan dezakeen jarrerak, horrek kezkatzen nau, adibidez. □